

# SCREAM STREET

SORGINAREN ODOLA



TOMMY NBAVAND

REGINA LARRUCEAREN ITZULPENA

# NOR DA NOR...



Luke Watson

Kle Farr



Resus Negatib



Dixon



Ott Handiputz jauna

Samuel Harrisalt





Alston eta Bella  
Negatiboa



Eefa Ondobeti



Doug



Kaskezurtegi doktorea




Nilo Fara



Watson Juan-andreak

# Ongi etorri Scream Streetera





## Lehenago Scream Streeten...

Luke Watson mutil arrunt bat zen, baina hamar urte bete zituen egunean gizotso bihurtu zen. Gero, beste bi aldiz eraldatu ondoren, Munstroen Arretarako eta Kokalekuz Aldatzeko Brigaden Organoak (M.A.K.A.B.R.O.) Luke eta beraren familia Scream Streetera joatera behartu zituen. Scream Streeten mamuak, munstroak, zonbiak eta beste izaki asko bizi dira.

Luke berehala moldatu zen, eta bi lagun egin zituen: Kleo Farr (momia mari-mutil bat) eta Resus Negatibo, aldameneko etxean bizi zen banpiro-familiaren semea. Hala ere, Luke azkar konturatu zen beraren gurasoek ezingo zutela sekula gainditu Scream Streeteko auzokide bel-durgarriekiko izua. Scream Streeteko Kondairak izenburuko liburu zaharraren laguntzaz, Luke sei erlikiaren bila abiatu zen. Erlikia bakoitza Scream Streeten sortzaileetako batek utzi zuen. Lukek erlikia guztien botere bateratua erabiliz soilik ireki ahalko du Scream Streetetik irteteko eta gurasoak etxera eramateko atea.

Lukek, Resusek eta Kleok iratxoek kontra borrokatu eta poltergeisten erasoak gainditu behar izan zituzten lehenengo erlikia aurkitzeko: banpiro zahar baten letagina, Negatov Kondearena, alegia. Orain, Watson jaun-andrea inoiz baino ikaratuago daudela, hirukotea bigarren erlikiaren bila joango da...

# Lehenengo Atala

## Odola



**Odol-tantak banpiroaren** letaginetatik behera erortzen ari ziren. Substantzia likatsua mingainaz garbitu zuen hortz zorrotz eta distiratsuetatik. Banpiroaren ahoa irribarre bihurtu zen odolaren zaporeaz gozatzen ari zela. Gehiago nahi zuen.

Berriz eraso eginez, banpiroak atzapar horixkekin gorpuari beste haragi-zati bat erauzi zion. Okela aldameneko odol-putzuan bustitzeko baino ez zen gelditzen. Izakiak hozka egin zien haragi-zerrendei, zainak eta tendoiak matraila adurreztatutik zintzilik dantzan zeuzkala. Bat-batean, oihu bat entzun zuen.

—Aita! Utzi zerbait besteontzat!

Alston Negatibok mahaiaren ingurura begiratu, eta, astiro-astiro, oilasko-hegoa platerean utzi zuen—. Barkatu —esan zuen ahapeka, lotsa —aurpegiarekin.

Resus Negatibok, banpiroaren semeak, eskua bere kapan sartu zuen. Kapak urdin kolore biziko forrua zuen. Barrutik, labana bat eta sardexka bat atera zituen. Mahai-tresnak aitari eskaini, eta esan zion:

—Badakizu mahai-tresnak erabili behar dituzula bisitariak dauzkagunean.

Tresna bitxiak baldarki erabiltzen hasi zenean, Resusek ukondo-kolpe txiki bat eman zion adiskideari, Luke Watsoni.

—Zuk ere ez duzu horrenbesteko nahaspilarik sortzen jaten duzunean... eta gizotso bat zara!

Lukek irribarre egin zuen banpiro helduak oilasko-hegoa plateretik kanpora atera eta patatak jangelako alfonbra beltzera jaurti zituenean.

—Banpiroa izateak abantaila batzuk dauzka —esan zuen Alstonek txantxetan, aulkitik jaikitzen zela—. Lepoei kosk egiteaz aspertzen naizenean, barazkiak torturatzen ditut! —Alfonbran mokoka hasi zen, eta letagin bakoitzean patata bana zeramala agertu zen.

—Aita! —kexatu zen Resus, lotsatuta—. Ez zara barregarria!

Luke barreka hasi eta gurasoengana biratu zen, txantxan parte har zezaten; baina aurpegia ilundu egin zitzaion bilerak ez zuela funtzionatu ikusi zuenean. Alboko etxeko banpiroek erabat ikaratzen zituzten Lukeren ama eta aita.

—Topa egin dezagun! —esan zuen Alstonek irribarez, patatak hortzetatik kenduz eta ardoa altxatuz—.

